

RAMON ETXEZARRETA - HIZKUNTZ POLITIKARAKO SAILBURUORDEA

«Hiriak behar duen liburutegi publiko handia egin gabe dago oraindik»

Patxi Baztarrikaren lekukoa hartuko du Eusko Jaurlaritzan; jakiteko dago, ordea, bere lekua nork beteko duen Udalean.

X. ETXABE

Udaletxean lagun zaharra da Ramon Etxezarreta (Urrestilla, Azpeitia; 1954). 1995etik 2007ra arte izan zen, Odon Elorza alkatearen alboan, zinegotzi, eta duela bi urtetik Kultura ordezkaria da. Hiriko kultura ardurak orain albo batera utziko ditu eta Hizkuntz Politikako buruhaustea izango ditu datozen lau urteetako aje. Hain justu, hainbat urtez hiriko Udalbatzako kide -Patxi Baztarrika- izandakoaren lana beteko du orain Etxezarretak.

Nola hobetu daiteke orain arte Hizkuntz Politikak egindako lana?

Orain arte egindakoa zakarretara ez botatzen eta egindakoa zaintzen saiatuko gara. Euskara bakearen orbitan sustraitzea eta elkarbizitzaren alorrean gure elementu propio bezala identifikatzea izango da gure lana.

Hainbeste urte Ijentea kaleko eraikinean igarota, zeren falta sentituko duzu?

Udalaletxean urte ugari eman ditut eta handia izan da hiri nahiz herritarrekiko gertutasuna. Kafea hartzen genuen tabernatik hasita, dena aldatu beharko dugu. Baldintza berrietara egingo al gara, bukaeran osorik aterako al gara hortik...

Zer nolako balorazioa egiten duzu urte luze hauetaz?

Orokorrean, urte hauetan oso gustura egon naiz. Oso gustura egon naiz, baina oso gaizki pasa dut ere. Pertsonalki, lotsagabekeria litzateke asko ikasi dudala esatea. Asko ikasteko ofizioak dira eta edozein animatuko nuke ardura publikoetan sartzera. Esperientzia handiarekin noa eta topikoa izango da, baina asko aberastuta noa, lapurretarik egin gabe.

Urte hauetan Udalean egindako lan marduletik, zein lorpen nabarmenduko zenuke?

Donostia, beste hiri eta herri batzuekin alderatuta, oinarritzko kultur ohituretan hiri aberatsa da eta harro naiz hortaz. Harrokerian erortzeko arriskuan jarrita, liburutegiak aipatuko nituzke lorpen nagusi. Dena den, aitortu behar dut dena egin gabe dagoela eta hiriak behar duen liburutegi publiko handia egin gabe dagoela. Norbaitek egingo duen esperantza eta desioa dut.

Orain Eusko Jaurlaritzako bulegotik lan egingo duzula, Donostiarentzat zein ekarpen egingo duzu?

Ziurrenik Donostia orain ez bezala tratatzearekin nahikoa izango da. Alegia, justizia pittin batekin tratatzen bada nahikoa izango da, orain arte Donostia ez baita ongi tratatua izan bere Udal Gobernuaren kolore politikoagatik. Tratu justu bat eskainita, hau da, dagokiona emanda, aurrera aterako dela uste dut. Donostiarrak gara, Donostia ezagutzen dugu eta abantaila horri etekina ateratzen jakin beharko dugu.